



Martín Laga



**UDABARRIA
BASERRIEN
BIZI BARRIA**

ZORIONEKO!

Bai, pozik gagoz euzkaldunok, zorioneko gara. Barrero urte bi edo geiego isillik egon ondoren, «GOIZ-ARGI» euzkerazko aldizkaria argitaldu da.

Ez dausku adierazoten zelan jarraituko dauan, asteroko edo aldizka al-dabenean argitaratuko dan, baiña, 533'gn. da 534'gn. zenbakiak iru illabeten barruan, Urrillean Urterillean argitaratu diranez, iru illabeterik iru illabetera izango dala esan lei.

Dana dala euzkaldunen eskuartean ikusi nai dogu aldizkari txukun ori.

* * *

Betiko antzera, ez da mardula, gizena, baiña bai mamitsua, gai irakurgarriak dabilzalako bere orri-aldeetan eta, bai-ta beti lez, erri-euskera garbi ta ulerkoia. Nai-ta gipuzkoera bizkaitarrontzat pizka bat zaillagoa izan, aldizkari onek darabilen euzkerea, pizka bat gipuzkoera osotua izanik, «El Batua» mordoltoa baiño askotzaz errezagoa da.

* * *

Lenago esan dogunez, urte bi edo geiagoan egon da argitaldu barik «Goiz-Argi» au, baiña, ez idaz-gairik ez dabelako euki eta nork idatzi eta, nork arduratu ta zuzendu, ez, txindirik nork emon ez dabelako euki baiño nai-ta orretarako almena ta aginpidea daben alkarte bat baiño geiago diran gaur-egun Euzkadi onetan, erriko euzkarari, euzkena gure izkuntza aberastuten daben euzkakiei laguntza geiago emon lezkiegak: Euzko Aldundiak eta Euzko Jaurlaritza.

* * *

Asieran esan dogu «Euskaldunok zorioneko gagozala» eta alantxe da, bada, argitaldu barri dogun «Goiz-Argi» onekin, iru aldizkari doguz Ego-aldeko Euzkadi onetan, erri-euzkara landuz baiña garbi ulerkorrean irarritakoak: Naparra'ko Aldundiaren laguntzaz argitalduten da «Principe de Viana», illeroko aldizkari bizkaiña... Bere orri-aldeetan darabilen euzkera txukunakin eta, Bilbo'ko Euskarazaleak, Biz-

kai'ko Aurrezki Kutxa'ren laguntzaz argitalduten daben ZER. Bata baiño bestea euzkera apaiñagoa eta goxoagoa darabilenak.

Edozeiñek erraz irakurri ta ulertu leikezanak, mordoilkeri ta atxe zatarra barik idatzita dagozalako gure izkuntza aberatsak beti jarraitu bear eban lez.

* * *

Orain urte batzuk, ba-genduan beste aldizkari oroigarri bat, ainbaten nekeaz eta gitxi batzuen txindi urriaz irarriten zana eta pozkiro Euzkadi'rik geienean irakurriten zana. Inork lauho bat eskuratu barik idatzi ta zabalduen zan «AGUR», baiña, beste euskal aldizkari asko lez, ez eukan ezetariko txindilaguntzarik eta, tamal aundiz baiña, bake-bakean al-dendun zan, nai-ta amar edo amabi anei, milla, aleraño saldutera eldua zan.

Ori nork idatzi ta nork saldu ez zalako ez, gorago «Goiz-Argi» gaitik esan dogunez, txindirik ez eukalako baiño.

Ez al da lotsagarria jokabide au auteskondeetan ainbeste milla autarki lortzen dituan erri batentzat euzkera txukuneko aldizkari batzuk, erki bakoitzean bat, eutsi ta gaiñatu ez egitea?

* * *

Irakurle, orain artean baiño benetako euzkaltzale geiago bearko dogu erri-euzkera jaso ta indartzeko, bada, euzkeran euzkalkiak eta euren bitartez baturtako euzkera izango da gure izkuntza goixoa gaizkatuko dauana eta ez erdelitzez beteriko «el batua», orixe dala euzkera nastu, zaildu (ikasteko) eta itxusitu dauana, naita berori dan goitik, Euzko Jaurlaritza'ko aolkariakandik laguntzarik geien dauana.

Ori ez dogu txartzat artzen, beste ainbesteko laguntza erriko euzkerak, euskalkiak, euzkera aberastuten daben euzkalkientzaz ba'dago.

Orixe izango litzake euzkotarron izkuntza benetan indartu ta goralduetea.

ALTUNA'tar JOSU

UDABARRIA

NEGU BALTZA

Igaro dogu, urtero lez negu baltza, bizitza bera be lurperatuta zaintzen dauan negu illuna.

Eta neguan eurite ugariak, inguruan ezotasun-giro gaisotia sortzen dabela, gure mendi aundi ta txikietan edur zuria otzaren ezaugarri, eta euririk naiz edurrik izan ez dan egunetan leia, izotza, ta giro otza.

Dan orregaz batera egun laburrak. Lurbiraren garri-inguruan egunak eta gabak beti bardiñak izaten dira eta ori be ez pozgarri izango, gizonak aldakorrak eta aldatzen zaleak garan ezkerro, baiña egun laburrak be ez jakuz atsegin, eguzkiak, laiño artetik urteten ba'dau be, berotzeko beste indar izaten ez daualako.

Egun labur orreitan atsegin izaten jaku eguzki epela artzea, baiña geuk astirik ez daukagula edo eguzkia bera laster joateko agertzen dalako, ez dogu izaten orretarako eukera aundirik.

Baiña igaro jaku negua eta ba-datorku udabarria.

* * *

UDABARRI ALAIA

Giro barri bat sortzen dau udabarriak eta ez izadi-saillean bakarrik, baita geure barruko egoeran be.

Udabarria bizi barriaren ezaugarria da: Neguan lurperatuta lez egon dan bizitasuna azalera agertzen da izakera barriagaz eta poztasunaz.

Txoriak euren abietan sendi barriak sotzen dabez eta gure landetan bildots jauzilariak alaitasuna zabaltzen dabe.

Negutean orriak galdu eta legor izan diran landarak orri orlegiz eta lora beillegiz jazten dira alaitasun-giro onetako apaingarriak izateko.

Bizi barriaren giro onetan gizona bera be itxaropentsu biurtzen da, bizi-pozak artuta: Jaiak ugariago, ibillaldiak sarriago, oporraldiak...

* * *

ABERRI-EGUNA

Olako giro zoragarrian ipiñi eben gure aurretikoak aberriaren eguna. Sasoi egokia benetan.

Landarak eta abereak bizi barria agertzen daben antzera, aberriak be loratze barri baten itxaropena dauka: Loratze barria Euzkadi'ko erakundeetan eta loratze barria euskaldunen jakintza-arloan.

Izan daitela ba, baketsua ta aurrerapenerako bideetan bizkortzaillea aurtengo Aberri-Eguna!

* * *

ITXAROPENA

Neguak dana amaitzen dan antza emoten dauan lez, udabarriak dana barriro asten dan antza dakarsku.

Ume-aroa udabarriagaz eta zartzaroa negu-aldiagaz bardintzen ba'doguz, ez begi iñok galdu zartzaroen be, udabarri baten itxaropena.

ROMA'KO SAN PEDRO ELIZA GOIRIA

Roma'ko San Pedro Eliza munduko aundienetarikoa da. Len audiena zan. Bere anditasuna, bere edertasuna ikustean lilluratuta geratzen da bat. Au jazo iaku danoi, batez be lenengo aldiz ikustean.

Ona labur-labur barri jakingarri batzuk berari buruz.

1507'grren urtean jarri zan lenengo arria Julio II Aita Santu zala.

1623'garrenean bukatu zan. Eun milla pertsona artzen ditu. 200 metro daukaz luzeran. 300 leto daukoz eta 30 aldara.

139 Aita Santu lurperatu dira bertan. 250 milloa franko ordaindu ziran bukatu zanean.

Zenbat ordaindu bear izango litzake gaur? 200 eta geiago gizona kok eta emakumek dauke bere ardua.

* * *

Eliz-aurrean enparantza zabal-ederra dago arkupekin. 300 santuren irudiak agiri dira eliz-barruan.

25 eta erdi metro luzeran dituan apaingarri bat dago. Apaingarri (obelisco) au Ejitotik ekarria da ta. 5.000 urte ei daukoz. Kaligula Kaiserrak eroan eban Roma'ra Jesukristo ilda 30 urtera; Itzok jarri

zituen urrez idatzita kristauak: CHRISTUS VIVIT, CHRISTUS VINCIT. CHRISTUS REGNAT.

Aurretik Neronen jolaseta (circo) egoan toki onetan. Ainbatek ixuri eben odola Kristogaitik.

Iru zurubi dagoz enparantza onetatik elizara ta zurubien alde bietan Pedro ta Paulo Apostoluen irudi aundi bi agiri dira.

* * *

Bost atetatik sartzen da Vatikanon enparantzara: Ate Santua izena dau eskuma-aldean dagoan azkeneoak.

Ate au Urte Santuan bakarrik zabaltzen da.

Metro biko izkiok agiri dira elizan orma-goian: TU ES PETRUS ET SUPER HANC PETRAM AEDIFICABO ECCLESIAM MEAM. Aitz zara zu ta aitz onen gainean egingo dot neure Eliza.

Biotza pilpilka genduala ikusi genduan orain urte Pedro Apostolu Donearen Illobia.

Gaur egunean be indar aundia dau Vatikanon'k. Millak joan oi dira mundu zabaletik orain lau gizardi jaso zan eliza aundi-ederra ikustera. Ta millak ta millak Kristoren Ordezkarri dan Aita Santuarengana.

AZI GORRIAK

Ba gendun guk, ez dakit noizkik, etxe bazter bat, ez ederren, ez ta be jorien; baña bai gurea, bakar bai giñan ondore-jabegai, asabak, esku maskurrez, landua guretzat.

Guk, ostera, lan bearrez, izkanbillak aibat. Batzuek zer erabilliko: golde ala lai, beste batzuek tratara nork ekarriko zai. Baita, salduta, naiago ebenak galdutzat.

Bitartean, iñork ez daki noiz eta zelan, ezta nork ereindako landara itxusiak agertu ziran larre ta solo bazterretan.

Beingo baten, goraka, gara luze biziak. Gorrotoak umaotutako aleetan mamiñak ustel t'odol gorritz bete aziak.

A. BIDAGUREN A.

URI BI

Olazar'tar Martin'i adizkidetasunez

1
Bilbo munduko
ibilgo.
Alboko mendiak
burdiñazko meatzez
ta, Nerbion ertzak
itsasoko abotsez.

2
Bermio
Solluberen
Oinpean
Itsasoz
Gatzitua,
Arrantzuzko
Euskal sen
Eztitsua

Dario;
Gizaldi
Zearrezko
Bizitzaren
Agiri
Ederrazko
Pozaldi
Ta, Elorrio.
MUNIATEGI'tar SABIN

JULEN ETA KEPE'REN SEMEA NAZ

Ni baserrian jaioa naz. Nire baserria mendi txiki baten gainean ikusten da. Txorien abi polit baten antzekoa da.

Etxea zarra da baiña etxean bizi diranak ez dira ain zarrak eta alboan diran landarak urte guztietan orlegitu ta loratu egiten dira.

Etxean bost senide bizi gara: Amama, aita eta ama eta anai bi. Nire anaiaren izena Kele da.

Joseba nire beste anaia ez da bizi. Aurtengo orrillean bideko ez bear baten il da. Ogia ekarteko joan da errira eta etxera datorrela, bidean, berebil aundi batera sartu da eta gero berebilla ez da gelditu etxerako bidean. Bera berebilletik urten egin da, gelditu barik, eta bide ertzean ilda geratu da.

Joseba nire amabi urteko anaia Aitaren etxean izango dala, da gure eritxia. Gure artean ez da aitzuten Joseba anaia.

* * *

Gure amama zarra da, baiña beargiña be bai. Bera da oillotokitik arrautzak ekarteko arduraduna, bera gure soñeko zarrak josten trebea, bera eskatzean suaren ardurea artzen dakiana. Garbikuzia ta etxea ondo eukitea bere ardurea da.

Amamaren lagunak gara gu guztiok eta bera be gure laguna. Batzuetan asarratu be egiten da, baiña arin baretuten da.

Gure amama ipuiñak esaten zalea da: Sorgiñen ipuiñak, iretxoenak, lamiñenak eta olakoak.

Ipuin orreitariko bat Peru Marala'korena da: Lamiñea erreka-ondoan bizi da eta bere orrazia dago uraren ondoan. Orrazia lamiñearena da eta Peru'k etxera eroan eta ez da agiri erreka ondoan. Lamiñea Peru'ren etxera joan da eta oneik dira bere berbak:

PERU MARALA'KO
MIRU ERATZIA,
EMON NIRI ORRA-
ZIA;
EDO NIREA IZANGO
DA
KORTAKO GANA-
DUA
EDO AZKAZIA.

* * *

Aita ta ama langilleak dira. Gu be iñoz eurakaz lanera joaten gara. Lana soloan izaten da, baiña amarena etxean ba bai, amamarentzat eziña dalako.

Goizean, eguerdian eta illuntzean aitaren lana kortan izaten da, baiña or bitarteetan soloetan eta basoetan be bai.

Larunbatetan, zapatuetan, ama azokara, plazara, joaten da eta andik etxera janariakaz etorten da. Janari batzuk etxekoak dira: Babak, azak, piperrak, lekak, eta olakoak, baiña beste batzuk kanpokoak dira: Ogia, orioa, okela barria, edariak, arraiña eta olakoak.

Ama azokatik etorten danerako pozik egoten gara. Bere otzaran beti egoten da zeozer gozoa. Ama olako janariakaz etorten da beti etxera.

* * *

Gu egun guztietan eskolara joaten gara: Gure irakasleak irakurten eta idazten ibiltzen dira eta gu geure liburuetan ikasten zaleak gara, baiña batzutan nagitu egiten gara.

Irakasleak erdeldunak dira eta gu euskera berbetan asten gara ta curak asarratu egiten dira.

Ementxe bizi gara bake-bakean, geure etxean.

MATINTXU

MARI-GORRINGO

Euskalerrri zarrean gertatu zan.

Urteak arrezkero millaka pasa dira.

Arrezkero millaka aldiz urregorritu ditu ota-lo-reak Euskalerrriko landa eta malda-gorak. Milla bider entzun dau kukuak oianean txantxagorriaren tsiu-tsiu, onen kabian arrautza ipiñi aurretik. Milla bider Udaberriak agur egin dautso Negu Beltzari:

—Agur. Datorren urterarte.

Basoetan leoi eta artz, otso eta azari, zaldi eta larrabei, auntz eta basauntz, alkarren arteko iskan-billetan, askatasuna osoa galtzen asita, gizonaren menpeko izateko bidean...

* * *

Aitzgorriko koba-zuloan aztia aztikerietan eta an beeragoko ibarrean erria txaboletan, beti egoera larrian; beti egun obegoen itxaropenean...Mari-gorringo urduri dabil denbora aldi auetan: senarraren maite-miñez urtutzen eta senarrak auzokoa maiteago. Alaz be, maite dau Mari-gorringok bere Artz biotzekoa.

—Nork egin ote dautso begizko?

Sorginkerietan burua naasi Mari-gorringok.

Sorginkeria arnasean ere.

Sorginkeriz betea izan dau euskaldunak, gizaldietan zear, bere burua eta gogo-toleste guztiak. Sorginkeria leizeetan sortu zan eta antxen dogu euskaldunok geure iturburu eta jatorria.

* * *

Illargi gabeko gau illun batean an doa Mari-gorringo, malkorretik malkorrera goiko aztiaten leize-ra.

—Dan, dan...!

—Nor da?

Ni naiz, Jauna, Bordatxuriko Mari-gorringo.

—Sar barrura.

Atakan gelditu da Mari: ateetan.

—Barrurago! Zer nai don?

Krisailuak ugari argi-gorri-beltzeetan, keia dariola; orma-zuloan ontzaren begi zabal illetargitsuak diz-diz krisailen argitara; buru-azurrak nun-nai; suge bizia askuetan aztiak; saguzarrak aidean; ikats-arrastoekin egindako zaldi, basauntz, larrabei, basurde eta bisonteak paretetan eta ormetan.

—Mari-gorringo aztiaren aurrean belainiko:

—Zer nai don?-Orru aztiak.

... nai don... nai don... nai don...

Oiartzunak leize-zulo-barrurik erantzun. Ozkirri larria Mari-gorringok bizkar-ezurrean goitik beera:

Ara, Jauna, nere senarraren biotza galdu dot.

—Ta..?

—Zera, maite-miñez il-zorian nagoela...

—Eta, zer nai don..?

Berriro oiartzunak eta berriro ere ozkirria Mari-gorringok bizkarrean zear:

—Ara, Jauna, kutuntxo bat nai neuke.

—Zertarako?

... tarako... tarako... tarako...

Oiartzuan ez zan ixiltzen Mari dar-dar ipiñi arteko guztian.

—Nere senarraren boitza birrerosteko.

—Birrerosteko?

Bai. Bere maitasuna nereganatzeko, alde eginda daukot eta...

—Emango dautsut kutuna.

—Bai..?

—Bai.

—Eskerrik asko, jauna.

—Ez aiñ bizkor. Ez aiñ arin.

—Zer, bada?

*—Aurretik leio-eme baten iru tanta-esne bear do-
duz, kutuna egiteko.*

—Iru tanta-esne..?

—Leio-eme batenak. Ekarriko al ditun?

—Bearko, jauna.

* * *

Leizetik atera danean, biotza argi eta burua naasi Mari-gorringok. Nundik esne-tanta oiek atara? Nora jo bear dot? Zer bide erabilli bearco dot? Buruan dana illun, laiño itsuak artuta bezala. Nora-biderik iñundik ageri...

Baina, maitasunarentzat eziñik ez da.

Ez da izango ere.

Eta Mari-gorringoren Artzenganako maitasunak neurrik ez dau itsaso zabala baiño zabalago eta ur-aundiak baiño aundiago izan. Bere biotzeko gogoa beteko eban nundik edo andik; bere naita lortuko eban goitik ez bada azpitik.

Bai, orixel

Burua erabilli bearco. Erabilliz, erabilliz, orra or nun gogoratzen dan, an beeran, itsaso aldeko oian eta baso baten ertzean, ibaitik beste aldera, bazala leoi-kabi bat.

Egunsentirako bidean da Mari-gorringo itsasora bidean. Biotza urduri doatsa:

—An ete da oraindik kabia? Alde eginda ote da-be? Esnea bear dot nai ta nai ez.

Gerturatu danean, aren poza! Leoi-emea ikusi dau titiak dindilizka. Erdibi egiña dagoela dirudi. Esnea ortxe dago ibaiaren beste aldera. Esku luze bat ba'neu, orain artzeko moduan...

—Emen daukot, nere begien aurrean; baiña, zer egin? Nola nere jokoa eraman piztia iruzurtzeko eta engaiñateko?

Egunez, burua pentsaketan lapikoa irakitzan bezala eta gauez lorik atzeman ezin, alde egiten bait deust saretik urak egiten daun antzera.

—Kutuna bear dot!

Dio garraxika biotzak.

—Kutuna bear dot! Nundik lortu? Erantzun buruak.

—Kutuna bear dot! Kutuna bear dot! Kutuna bear dot...!!!

* * *

Naimenaren indarrak buruan jo dau beñ eta beriz: eunka bider, millaka bider sukarran burniak jotzen dauan antzera eta, azkenik, txinpartaren argia buruan piztu da.

Illunbeak iges. Burubide guztiak eratu ditu goaren ganbaran.

Jaiki da Mari-gorringo oetik artaldera joateko. Ortzian izarrak nir-nir agunsentiaren zai. Atxumeak amaren epelean kokaturik, lo. Illebeteko antxume txuri-beltz otzana eskuetan artu eta bere bularren gainean estutu dau, amaren epela galdu ez dazan abereak.

—Gaixoa..! Atoz nigana, gaxo ori..!

Bere beatzeekin buruko ille kirruak eragiten dautsoz maitekor.

—Nere maite-miñaren sendagarri bear zaudaz, enetxo...

Eskuak gorri odoletan Mari-gorringok: antxume gaixoaren odola. Mariren zorionak beste iñoren eriotza dau egarria: maitasun zorionaren prezioa, antxume otzanaren erio.

—Ala da, tamalez. Beste erremediorik ez dot..!

Zumezko otarra garbian antxumea artu eta ibaiertzetik beera leoi-emearen billa.

—Arkituko ote dot..?

* * *

Oraintxen egun-argiak illuna menperatzen. Basoan txoriak egunari agurka. Mari-gorringoren biotza taupadaka, leertu bearrean:

—Lortuko ote dot nere amesa? Izanen ote dodaz nere eskuetan leoi-emearen titi epelak..? Atzemanen ote dot bere ezne zuria..?

Bat-batean leoi zaarraren zantzoak ixilarazi dituz txoriñoen txiru-lirulak eta mendiek alkarri erantzuten dautsoe orru ikaragarria.

Dar-dar Mari-gorringok.

Biotza taupadaka leertu bearrean.

—Ene biotz, baretu adi.

—Kutuna bearrezko. Biotzak erantzun.

—Geldi adi..!

—Kutuna bearrezko!

—Baketu adi..!

Kutuna bearrezko!

* * *

Orru berriro leoik.

Oiartzunak erantzun dautso leoiaren orruari eta bat-batean basoak orruz bete diraz. Aizea gelditu da adarretan zintzillik. Ostroak ixil. Txoriek lepoa ernai. Enbor zaareko illunpean azariaren belarriak tente...

Auzo osoa bildurrez dar-dar.

Emakume argal batek bakarrik dirau zutik errege onen aurrean. Belaunak alkar joka ikaraz; baiña, biotzak indar:

—Kutuna bearrezko..!

—Ene biotz, bildur naiz eta etengo zait gogoa...

—Kutuna bearrezko!

Aragi-usain epela leoiaren sudurretara ibaiaren beste aldetik:

—Au antxume-usain gozoa..!

Aotik lerdea dariola, ezpain-gaineko illeak miazten dituz bere mingain luzez gure leoi zaarrak...

* * *

Mari-gorringo eta leoiaren bitartean leiarrezko ur gardenak: erreka garbi-garbia. Mari-gorringo uretan oiñak sartzean, amorraia izutu da eta arriazpian gorde dau bere izua. Uraren otz-ikara Mari-gorringoren gorputzean gora. Biotza taupadaka.

—Ene biotz..!

—Kutuna bearrezko!

Ibai-aldeko usai gozoak eraginda leoi-emea dator bere kumeentzat janari-billa. Mari-gorringo baiaren ertza arrapatzeko dago oraindik:

—Ene biotz..!

—Kutuna bearrezko!

Arin-arin, leoi-emea eldu baino leen, legorrean da Mari-gorringo. Bertan otarra laga, saskitxoa bertan utzi oragi gozoz beteta, eta ibaitik beste aldera berriz ere. Orain, bien artean, ura dago. Otarraren aurrean zutik, Mari-gorringori begira dago leoia. Begiak Mariren; baina, sudurra otzararen aragiarentzat.

Zalantzan unetxo batean. Zein une luzea Mari-gorringoarentzat. Azkenik, usaiñak garaipena. Sudurak irabazi.

IPUIÑAK

Mari-gorringorentzat orruak, antxumeari ortzak ordea. Bi emeak alkarri begira. Ibaia dute bien arteko esi. Leoiemeak ez dio Mari-gorringori bagiak gaitetik kentzen; ortzekin antxumeari eldu dautso...

Laurden-erdi bat jan ondoren, beste iru-laurdenak kabira daroiaz leoi-kumeentzako festa, Mari-gorringoren estatusunari esker...

Saskitxoa artu eta etxeratu da Mari-gorringo.

* * *

Bigaramonean jokabide berdiña.

Egusentirako antxumea otarran, saskitxoan, otzaran...

Errekara elduda.

Leoiak orru.

Urak pasa dituz Mari-gorringok, otarra utzi lurrean eta inguruko zugaitz-enbor baten atzetik izkutatatu da. Ez du uraren beste aldetik arrapatu nai. Bil-durrak dardar:

—Ene biotz..!

—Kutuna bearrezkol

Leoi-emeak begiak Mari-gorringori; ortzak, antxumeari.

Bertan laurdena jan eta beste zatiakin kabira.

Mari-gorringok saskia jaso dau lurretik eta, une artan, argi bizi bat sortu zaio barneko illunbeetan: bere itxaropenaren egusentia..!

* * *

Irugarrenez antxumea...

Irugarrenez ibaia...

Irugarrenez leoia, leoi-emea...

Irugarren aldi onetan, Mari-gorringok otarra arbola lodikote baten ondoan ipiñi dau eta bertan, zugaitzaren atzetik, gorde dau bere burua, alde egin barik.

Leoi-emeak orru. Mari-gorringoren belaunak dar-dar:

—Ene biotz..!

—Kutuna bearrezkol

Kalabaza-ontzia eruan dau Mari-gorringok. Eskuetan du.

Leoiak antxumeari eldu dio, iztarrari, eta ari da mauka-mauka jaten. Mari-gorringorentzat auxa da une egokia. Kalabazak ere eskuetan dar-dar:

—Ene biotz..!

—Kutuna bearrezkol

Eldu deutso errapeari. Titi epelak esnea dario. Esne-tantoak kalabaza-barrura. Bularra apurtu bear biotzak barnean:

—Ene biotz...!!!

—Kutuna bearrezkol!!!

Otarra bertan laga eta korri Mari-gorringok ibaiez beste-aldera. Biotzaren taupadak bizkorak, pozaren-pozez leertu bearrezkoak..!

* * *

Bular artean kalabaza txikia, korrika dijoa maldan-gora Mari-gorringo Aizgorriko leize-zulora. Amesak bitartean:

—Ene biotz, kutuna izango dogu..!

Barru-barneko itxaropen-egusentia eguzki bete biurtu zaio Mari-gorringori:

—Ene biotz, gurea dogu kutuna!

—Zalantzarik gabe, Mari?

Bai biotz, eta kutunarekin batera gure Artzaren maitea ere bai. Jeiki adi, ene biotz, eta bota irrintzi luzeena..!

Mari-gorringoren irrintzia beeko ibarrean zear eruan eban oiartzunak aterik-ate baillarako borda guziatara.

* * *

Eldu da Mari-gorringo goraiño. Aztiaren ate-aurrean dago zutik:

—Dan, dan!

—Nor da?

—Mari-gorringo.

—Berriro emen?

—Bai, jauna.

—Zer nai dona oraingo onetan?

Iru egun dirala, kutun billa etorri nitzan, ene Jaun orregana...

—Bai. Eta zer..?

—Esnea bear zenduela, esnea, kutuna egiteko...

Ez. Leoi-emearen esnea!

—Nerekin dot esne ori. Ona emen!

Argiaren dir-dira Mari-gorringok begietan; zorion betearen dirdira. Onela dio arro, bularra itxaropenez beteta:

—Ona emen esne ori..!

—Ekazan.

—Zure agindua bete dot; orde, kutuna zor deustazu.

—Emango deutzut kutuna.

—Eman! Eman!

Biotza Mari-gorringok taupada larrian. Itxaropen zoriontsuaren taupadak.

—Eman! Eman!

—Kutuna izango dozu.

Au poza..! Eman! Eman!

—Baiñan, aurretik galdera batzueri erantzun.

—Nai dozuzenak egin.

—Nun eta nola lortu dozuz esne-tanta oiek?

—An eta onela lortu izan dodaz esne-tanta oiek, jauna.

—Orain kutuna bear dozu?

—Bai, jauna, kutuna bear dot!

—Ona zuretzako kutunik ederrena: leioari egin daitsozuna, egin zure senarrari be.

—Ene biotzzz...!!!

ARRANEGI'ko ANES

Karlatarren Bigarren Gudea

AMOREBIETA'KO ITUNBENA

Karlisten gudari bizkaitar kemensu bioztunak Araoz'etik Bizkaiarantz jatsiten asi ziranetik, buruzagi agintarien artuemonak etziran maitekor txerazkoak.

Araoz da (edo zan) Oñate ondoko erritxu bat. Emen Oñaten Bizkaitarrak gudaketa irabazi, parkatu bizia 52 liberal baltz atxillotuai, txapelgorri Mikeletek guri Mañaria'n 18 atxillotu zaurituak erail arren, batu zirean karliste nartarrakin.

Entzun eben gitxienez 15.000 gudari. Baiña ikusirik 700 bakarrik zirala, gudaketa bat galdu ba'leben baiño etsipen, biotzikara ta ames-alper andiago artueeban.

Antxe Araoz'en Bizkaitar karlisten gudaldi indartsu goresgarria azkendu zala esan geinke. Orduetik esan dogun agintarien aserrea.

* * *

Carasa naparrak, gure gudalburu Uribarri ospetsua il zanean, bizkaitarrai ezarri gura eutsen Marqués de Valdeespina gudalburutzat.

Au ez eben onartuten bizkaitar gudariak Augaitik, Guda-Aldundegi'ko lendakariak ezetza emon eutsen. Ez dozue ikusten nundik asiko zan agintarien asarezko eztabaidea?

Naiko Lendakarien aurkako jarraikada, eraso?... Gitxi-gora-berra, orain, gizaldi bat geroago, dagoan Bizkaitar arazoan aurka eztabaidea gogorra. Bizkaitar kokolo edo saltzaille ta giputz eta napar matzurren artean iruntziten dabiz Bizkaiaren gure Euskera ederra...

* * *

Baiña gogoeta aldarriari itxita, geure arlorra. Leon Yriarte Lendakariaren (Corregidor) aurka ebi-

llen ta oratu gura eban. Aurrez-aurre ez auzaturik au egiten, eginbide au bururatu jakon. Arias guardiazibilen ofizialak eroango eskutitza Yriarte'ren aginduz ak ezetza emotekotan antxe bertan ilgo ebala Ybarra'n batu ziranean Leon Yriarte, Marqués de Valde-Espina ta Guda Aldundegi'ko Lendakaria Arginzoniz 'jauna, oneri atxillotua zala esan eutsen Iriarte'k. Arginzonik'egaz kartzelaratu ziran Cobrerros eta Garay, Bilbao ta Gernika'ko gudari ta deak abaitu ziran arte.

* * *

Bizkaia'ri ainbeste neke min al dendu gura eutsena saltzaille ba' litz salatua ta atxillotua.

Orrelango txarkeririk jazo leiteke?

Zoritxarrez jazo zan. Ez bakarrik salatu, atxillotu ta espetxeratu, baita be destaiñez eta amurru gorrotoz eraso ta aurean erabillibe.

Baiña Edesti istoriaren egiak diño Yriarte maltzuraren eskabidez Arginzoniz'ek zuzenduriko Bizkai'ko Guda Aldundegiaren guda-amaitze ta bakea izenpetu ebala.

* * *

Atera eben espetxetik eta geixorik egon arren, begiramen eta ardura bage Ereño'ra eroan eben ra biaramonean Larrabetzu'ra. Erri onetan Arginzoniz jauna danak ezagutzen eben bere ondasun zati batzuk an eukazalako ta aldi baten senide aide urkoak be bai; augaitik espetxe-zaiñari bere etxean egoteko baimena eskatu eutsen.

Baimena artuta bere gelara sartu zan eta araiño aldu jakozan iru gudari su-izkilluz ornidurik, guztiai esanez Lendakaria (Correjido-ra)'ren ilteko agindua eukela. Larrabezua'tik Morga'ra eroan eben. Bidean bere laguntzaille zintzoak esan eutsen iges egin egiala, gudari taldeak il egingo ebela-ta. Iru egun atxillotua zala ta eriotz arriskuan, Gernika'ra eldu ziran. Eta emen Iriarte'ri deitu eutsan, eta erabagi ta auzartasunez eskatu gogor Guda auziz epaikatu egiala.

* * *

Gaiñeratu eban gogo indartsuz: «Ez dot gura urten etxe onetatik enparantza agirian tirokatu izateko edo azkatasun osoa jadesteko baiño. Ilgo ba-naz, eriotz-epaia entzunda il naitela. Jainkoaren laguntzaz errubako bat ilten danaren baketsuaren jarraibidea emotea ta uste dot-eta». Yriarte ta Arginzoniz'en aurka ebiltzanak estu-aldian ipiñi ebezan erabaki sendo oneik.

Alde batetik, euren barruko erruan min-kezka: Errubako bat eraso, aurean erabiltea zala-ta, beste aldetik, bildurra andia errubako zala esateko ordurarte erruduna zala siñisterazo eutsoenai.

Zorionez, eurentzat orduantxe Gernika'ra eldu ziran On Pedro de Allende Salazar eta On fray Juan Bautista de Zabala, Arginzoniz'en ezagun, adiskide ta lagun zintzoak. Allende Salazar'ek batzarreratu egin ebazan gudalburuak, eta batzar orretan salatua- ren erru-eza agertu eben, argi ta garbi.

LETONA'k

BIXENTE ETXEZARRAGA, OLERKARI (1891-1968)

GIZONA

Gizona, argi autortu daigun, misterio aundi bat da; gure mendi ta arkaitz artean ugari samar dagozan leza ao-zabal illunen antzekoa. Beronetzaz zerbait zerbait dakigun arren azaletik, barruz —ezpirituz, pentsamentu ta sentimentuz— oso gitxi besterik ez dakigu. Geienik maltzur, azpi-jale, guzurti, apetaz betea agertu oi jaku. Eta azala barruaren ispillu dala bape lorritasunik bage esaten dogu. Zerbait ba-dago, beraz.

Misterio au bertsogintzan aundiagotu egiten da. Errazoe ta sentipenaz batera irudimenak be lan dagi koplak sortzerakoan. Kopla-sortzea, barriz, beste edozein joko lez, asmamenarren joko maiñatsua da; setati baten burualdia. Gizonak ortxe josita lez itxi daroa bere misterio edo ezkontuaren zati bat. Irakur edozein olerki eta ikusi.

Olerkiaren artean, jakiña, batzuk argi ta misterio aundiagoz inguraturik agertzen jakuz, gure Lauaxeta esate baterako, edo Erkiaga, Aurre-Apr aiz... Oso misterioz jantziak nunbait. Beste batzuk errez, lau ta toles-bakoago ditugu; arein lanak, olerki lanak, ez jakuz ain errez ulertzeko; bigarren oneinak, bai, ostera, irakurri-ala uxlerzen doguz.

Zeintzuk eta dira obeak? Garai bakotxeko gus-toak asko esan nai dau. Gaur, adibidez, illun-zale dira artistak, naiz pinturan, naiz poesian, naiz dantzian. Ikusleak naiz irakurleak lan egin bear ei dau illunetan dagoana argitara ateratzeko. Or untzea. Artisteak berak bakarrik ez dautso lanari ekin gura, besteak be saila daitezala nekelanean.

Ortik, ba, batzuk goregi ta beste batzuk lauago ikusi oi dfitugu, olerkariaren artean naiz beste edozien artetan diarduenak. Baiña beti misterioz gaiñezka. Etxezarraga, «Zidorra» euskal literaturan, lau onein artekoa genduan.

Aran lilluragarri ontan jaioa dogu «Zidorra», Zeanuri'n, Altoste auzuneko Ellauri basetxean, arratsaldeko lauretan ain zuzen, lengo gizaldiaren azkenetan, 1891'ko urtarrillaren 25'an. Urrango egunean bateatu eben. Bere gurasoak: aita, Eujenio Etxezarraga Beaskoetxea, lurgiña, Zeanuri'koa, eta ama, Benita Artiñano Orue, Zeberio'koa.

Zeanuri'n bertan egin zituan bere lenengo ikasteak eta gero Balmaseda'n, Miren Biotzaren Semeen ikastetxean urte mordotxoan. Buruz argia zan Etxezarraga, gizon lez zintzoa ta edozeiñi laguntzeko beti gertu egoana.

Ezkundurik be Zeanuri'n bizi izan zan, baiña emaztea il jakon. Eta gerra-aldian eta gerraondoan batez be or ibilli zan ara ta ona, penaz eta oiñazez beterik. 1943'ko epaillaren 26'an barriro ezkondu zan Iruña'n, Laurentzi Deunaren elizan. Osasunez beti izn zan meko ta aul samarra, eta Ameriketako giroa ohea izango jakolakoan, Argentina'ra joan zan, an Rawson'en bizi izanik bere arreba lobarekin luzaro. Ez eban seme-alabarik euki. 1969'ko epaillaren 25'an il zan, antxe bertan.

OLERKARI

Naiko ikasia izan jakun «Zidorra». Beti ta nun-nai dozuz onuragarri umetako ikasi ta onek lez ko-mentuetan artutako asimasiak. Bizitza zear laster erakutsi oi doguz gaztetan egindako ikasketen frutua. Au edozein arlotan. Egin-egiñean be gaztetatik dakargun garra baliotsu izan oi jaku bizitzaldi guztirako.

Euskal arloari begiratu ezker, ez eban askok lez ez ikasle zala ez geroago bertanbera itxi basetxeko suete epelean edoski eban asanbengandiko izkera ez-

tia. Autuan euskera eban eguneroko mintzabidea. Orrez gaiñ, idazteari be aspertu barik ekin eutson, ainbat euskal orri ta aldizkaritan bere lanak agert-erazorik. Zornotza'ko «Jaungoiko-Zale»-n, «Ekin»-en eta «Karmen'go Argia»-n, Bilbo'ko «Euzkerea»-n eta «Euzkadi»-n eta «Arratia'ko Deya»-n idatzi eban ba-
tez be.

Prosazko lan artean ba-daukaz olerki edo poesi labur ariñak, beti zentzunez osotuak. Ainbat gairi ikutua egin eutson, illai, santuai, Karmengo Amari. Emen gai bi bakarrik ikusiko doguz: «Gorbeia» eta «Oldargi».

Bere jaiotetxetik aurrez aurre dauko Gorbeia, mendi galantza, atxez eta bedartza joriz betea. Klase askotako abereak bertan, baiña ardiak batez be; an agiri jakoz artzaiñen txabolak, or-emen banaturik, zuri ta eder. Txaboletan bizi jatoz artzaiñak ia beti, baiña astero lez etxera be osteratxu bat egitea atsegin jake. Etxean beretarrak poztu ta beretarrez pozturik, bariro doa gorantza, bere ardiakana, eta artzain-lagunengana. Ipiña-burutik, Lanbreape'tik edo-ta Zanburu'tik gora igoten ikusten dau olerkariak artzain zolia. «Gorbeya'ko artzaña» deritxon olerkiak 13 estrofa daukaz, eta laugarrenak eta onela diño:

«Bere bularrak eztau
arnas-soñurik;
ezta belaunetan be
dardakadarik.

Ardiak entzun dabe,
eztauke gorrik;
tximista legez datoz
giñerra artetik.

Goiz bulartsu egin dau
ujul gogorra;
ostian, baña, zoli
txistu zorrotza.

Zarratu ein daunarren
laño itsuak...
danak artesirantza
bere txistuak».

Errape aundi-ugaritsuak dira artzain onen ardiak eta esne-zama arindu naian, txistua entzun orduko alkartzen dira artesi inguruan; an daukaz zoli tiribilduta; artzaiña antxe kantin luze-zabalez. Olerkariak onan:

«Artzañak ankartian
esne-ontzia,
pozik emon ardiak
daukon esnia.

Ardiak eratzita
barriz larrara,
artzaiña esniagaz
etzantegira».

Eta ondoren, esnari legarra emongo dautsa. Lekanda ostein sartu da eguzkia; laster zabalduko dau itzalak bere maindura. Artzaiñak aparia egiten dau, baita lotara orduko, gaztaiak egin be. Gero, lau ordutan, atsedena-aldi.

«Oldargi» deritxonak sei ditu, seiren artean 25 estrofa egiñik. Sei zatiok margo-lauki edo kuadru antzera osotuak dituzu, irudimen urduriz eioak. Izenburuak diñoana, bat-bateko argi-uneak. Poesi iraunkorra, beti ere laburra ta ariña izan oi da; baita «Zidorra»-n oneik be, piztu-itzali dagoan izarraren antzeko begi-liskak. Bigarren zatikoak, iru aapaldi ditunak, onela diño:

«Illunabat geltsuan
seaskatxuan,
aurtxua lotan daula
gotzon antzean:

«Lolo, kontuntxo —diño—
lolo, ixillik,
mamu ankerren batek
eruan barik...»

Amona lo jarten dau
aur-abestiak;
ta ames dagi: «Daroast
aurra gotzonak».

Bostgarren laukia itxastarrena dozu. Arrantza-leak itxasotik dabiltz, baiña illuntzean ba-datoz porturantz. Or, kaian ontzi lotuten diardue pozik, erria nasan pillotu da, alaitasun aundiz kantari. Or, bes-teen artean neskatxa bat, orain negar, gero barre. Aspaldi dago orrelaxe. Bere senargaia dator, urrean, arrantzaleen artean. Olerkariak kanta:

«Neskatxa batek negar,
barre dagilla;
erotuta lez diño:
«Ba-dator errira!».

Errian sartzen dira,
ene zoria!
Zoratuta danak...
Au bai alai!».

Auxe da «Zidorra» olerkigintzan, inguruko ederraz konturatu, berau jaso ta besteai iragarten dakiana.

AITA ONAINDIA

ALDARE-LIBURUA (II)

3.—BEZALA itza, euskaraz beintzat, berdintasuna adierazteko da. Gaztelerazko COMO itzaren antzera, baiña ez era berean. Izan ere COMO ori adierazpen ez-bardin askotarako erabiltzen dute gazteleraz. Eta ortatik dator naastea euskaralpenak egitean.

a) Berdintasuna adierazteko: «Aita BEZALA Jainkoa da Semea ere... Zaarena BEZALA jazten dira beste senideak ere... Aita BEZALA semea, egizale dira.

b) Egiaz eta benetan ez dan zerbaiten antzean edo itxuran dabilena adieraztekoan: «Errege (ba'litz) BEZALA BIZI DA ORI... Astoa (ba'litz) BEZALA, makillapean darabilte ori...

c) Egiazko ta benetako izaera adieraztekoan, gaizki BEZALA. Adibidez: «...lagundu, guztien senide bezala izaten... 660'gn orrialdean.

«Familia bateko senide bezala elkaturik... 861'gn orrialdean.

Esaldi biok gaizki daude, ez dan zerbaiten antzera edo ez diran zerbait ba'lira bezala ipiñita bai-daude or.

Egiaz eta benetan zer diran, edo zer izan bear duten adierazteko bidea, beste au da euskeraz:

«...lagundu, guztien senide DIRANEZ edo senideei DAGOKIENEZ biziten...

«Familia bereko senide GERANEZ edo senideei DAGOKIENEZ elkaturik.

Beste adibide argigarri bat ipintzeko, auxe esango nuke:

«Gotzai BEZALA dator... Gotzai BEZALA aginten du...» Orrek esan nai duanez, Gotzai EZ DANA dator, naiz agintzen ari da, ala BA'litz bazala.

Baiña benetan Gotzai dana, GOTZAI DANEZ dator eta GOTZAI DANEZ ari da agintzen. Orrela, bada, oso naasgarri da BEZALA ori oker erabiltzea. Askor gutxiagotan erabiltzekoa da, eta zuzeneko eran bakarrik erabiltze bearrekoa.

4.—NOR eta ZER bat baiño geiago diranean, (gaztelerazko «complemento directo» dalakoa alegia), aditzean askorenean adierazi bear dugu euskeraz. Gazteleraz oso bestela da, nik gauza bat ikusi ala asko ikusi, aditza berdin: he visto una cosa... he visto muchas cosas», aditzean aldatarik ez. Euskeraz, ordea, oso bestela da, aditza ere askoren adierazgarritz ornitzen bai-dugu: «Gauza bat ikusi DUT, gauza asko ikusi DITUT», e. a.

«Orduen Liturgia» liburura jota, AMABOST akats zeazki bereizi ta zuzendurik adieraziak ditut Gotzaitegira. Bat edo beste, adibidez:

a) Jesukristo gure Jaunaren grazia, Jainko Aitarenen maitasuna ta Espiritu Santuaren batasuna izan BEDI zuekin... (Mezaren egunerakoan dator). Gauza geiegi dira iru oiek, bakarra ba'litz bezala, BEDI esateko.

Beraz, onela bear luke: ...izan BITEZ edo BEDIZ zuekin.

b) ...Emaiezu jakintza ta pakea... 766'gn orrialdean.

Onela bear luke: EMAIZKIEZU edo man EZAIZKIEZU jakintza ta pakea.

c) Zungandik dugu askatasuna ta salbamena.. 390'gn orrialdean.

Onela bear du: Zungandik DITUGU askatasuna ta salbamena...

Zentzu onez, baiña zeazki zeazki ta zuzen zaindu bearreko alorra dugu, eta bestela jokatzea, oker eta akats barka-eziñetan geditzea litzake.

5.—GIZON, SEME, ANAIA, AITA itzak beintzat euskeraz ez digtugu gazteleraz bezala erabiltzen, oraingo erdal-kutsuz gauzak geiegi aldatu ba'ditugu ere. Giza-kuntza bietakoak adierazteko, itz bera erabiltzen dute gazteleraz, adibidez onela: «el hombre, los hombres, los hijos, los hermanos, los padres...» esatean, gizonezkoa ta emakumezkoa, seme-alabak, neba-arrebak eta aita-amak, batean sartzen ditu gaztelerak.

Jokabide ori, ez da egokia euskeraren jatortasunari dagokionez, oituzako erabilkeran askoz zeatzagoa bai-da gurea erdera baiño. «Los padres de mi amigo», euskeraz ez dago «nere lagunaren aita» esaterik, onela baizik: «nere lagunaren aita-amak edo gurasoak». Neretzat bera da beste oietan ere. Bereizketa ori kontuan erabilli ezik, ona zer gertatzen dan:

«Jauna: asieratik gizona, giza-seme ta emakume egin zenuen», 967'gn or.

GAZTAÑAGA
(Jarraitzeko)

SANTU EUSKALDUNAK (Jarraipena)

Epaillak 28

PRUDENTZIO DEUNA, ARABA'KO ZAINDARIA

Prudentzio Deuna Araba-ko Armentia'n —Gasteiz ondoan— jaio zan, 6.garren gizaldian. Zein urtean ezin esan...

Gaztetxo zalarik, Jaungoiko egarriz, basamortu ra joan zan Saturio bakarzale santuagaz batera otoiz eta penitentzia egitera.

Bere gogoaren maisu zan Saturio il zanean, Prudentzio Kalagorri'ra joan zan ango kristiñauen arteko gorrotoak baketzera. Lan, otoitz eta batez be pazientzi askoren ondoren, Kristoren maitasunak irabazi eban.

Tarazona'ko gotzain aukeratu eben, eta erri onetan naiko lanik egin izan bear ango bizilagunen artean bakeak lortzeko.

Osma'ko errian eztabaida gogorak sortu ziran eliz-gizon eta erriaren artean. Prudentzio bakeak egiteko eukan doai berezia jakiñik, ara bialdu eben Tarazona'ko gotzain santua. Bake-lánean ebillela Jaungoikoak deitu eutsan betiko bakezko erreinura.

Prudentzi Deunaren bizitza berba gitxitan adierazteko, bake-zale eta bake-egille izan zala esan ebar.

1949 urtean Pio 12.garrenak Arabako zaindari izentatu eban.

Loraillak 9

BERRUETZA'KO GREGORIO GOTZAIN SANTUA

Santu au ez da Euskalerrian jaioa, Italia'ko Ostia urian baiño, alan eta guztiz be, Nafarroako lurraldetan egindako Ebanjelioaren aldeko lanakatik gure deunen artean jartzen dausku euskal liturjiak.

Ostia'ko gotzain zalarik, Benedicto XI garren Aita Santuak Nafarroako Errege Gartziarengana bialdu eban «Legatus pontificius» bezela, 1.053 urtea.

Aldi aretan gaurko Errioxa osoa Nafarroako erregearen menpean egoan, eta Naxera zan orduan Euskalerriko uriburu. Erri onetako eleiza ederrean ainbat nafar errege eta erregeiñen illobiak dagoz, gaur be.

Santu onen lana gogorra izan zan erriz-erri, atertu barik, Errioxa'ko lurraldetan Kristoren barri-ona zabaltzen.

Galtzada'ko Domingo (Santo Domingo de la Calzada) Gregorioren ikasle eta lagun mamia izan zan. Mirariak be bat baiño geiago egin ei ebazan, batez be Logroño aldeko soloak matxin-saltoa ondamenditik zaindu ebazanean.

1.048 urtean il zan, eta bere azurrak Nafarroan, Berruetza araneko San Gregorio Ostiense deritzan basilika ederrean gordeta dagoz.

Inguruko erriak, Los Arcos, Soslada, Lizarra eta abar, jaiera beroa agertzen deutsoe urtero Santu oneri.

(Jarraituko dau.)

GOIKOETXEA'tar IÑAKI

UDABARRIA

1. *Udabarría, zoragarria: agurtzen zaitut poz-pozik. Egun ederrak ona dakazuz, zuk gaukazuz zoraturik.*
2. *Aize biguna, lorak usaintsu zabaltzen dira gugaño. Mundu barria, jaio barri lez, agertzen yaku, irriño.*
3. *Ingurukoak, aize epelez, gozatuten dabe dana. Egualdia zoragarri dau, dogun aize be, ona.*
4. *Bedar ta lorak, usain gozoaz zabaltzen dabe, daukena. Eta txoriak egiten dabe dakiten kantu onena.*
5. *Euren maitasun eta senagaz, gure dabe abia ein. Eta or lanez biak dabilnaz, arduraz, aita amakin.*
6. *Gero arrautzak ipinko dabez ta egopean berotu; kumeak urten, azala pikuz, eiten dabela apurtu.*
7. *Lana antzeko ule txikia ager da; gero lumatu ta danen pozaz, txori politik, egingo dira agertu.*
8. *Txoriak kantuz alaitzen dira, dana poztuten dabela; uda barriak, beste guztiak eskerrak damotzezala.*
9. *Alako dira ume ta mutil, udabarriren antzeko. Gero elduak, baita be zarrak bestaldera joateko.*

ARGINTXONA

DIKTADURETAKO GAUZAK

Aintziña-aintziñatik Ipar-Ameriketan zaarrentzako etxeak bear zirala entzun izan genduan. Baita be mojak arduratuta ebiltzala arazo orretan.

Orain gure artean be arazo berbera etorri jaku; arresidentzien bearra.

Franco'ren azkenengo denporetan milloi asko eralgi ziran Donosti'an olako erresidentzi bat egiteko esmoz. Antza, España Estadu osokoak bertan pillatzeko-edo.

Azkenean orduko bosteun milloi pezetok ezertarako ez dan etxe aundi-uts baten gelditu dira. Urteak eta gazte ganberroen kristal-apurtze ta ganorabakokeriak alperrik galtzen.

Lejonan, Unibertsidadearen ondoan gaixo-etxea ondo letorkela-ta, zortzireun milloiko etxe aundi ikaragarria egin eben, Basurto'ko Ospitalaren ordezt: Bizkaiko Aurresti Kutxak emondako dirua ta Gaixo-Etxeko ba-

tzordearena bertan sartuaz. Guzti ori ezertarako ez zan izan. Eta beste seireun milloi bear zeozertarako izan daiten.

Eta, Gasteiz'en, zer egin eben? España'ko Osakuntzakoek egin-dako erraldoiak zazpireun milloi balio izan ebazan egin ebenean. Bederatzi oiñekoa, Gazteiztarrok umore onaz «Eutanasikoa» deitzen asi ei ziran etxe orreri. Uri barruan, aundiegia, nagusiarentzat. Geienak erri txikitakoak izanik bertan ez eben aurkituko giro onik.

Orain zorionez, Araba'ko Aldundiak, Diputaziñoak, eta Eusko Jaurlaritzak onurea atara dautsoe erraldoi orreri. Ume atzeratuentzako egoitza bertan eratu dabe.

Eta ingurutako lur batzuk erosituta gure Ertzaintzarako egokiak diran lanak eginda, ez da alperrik galdu Estaduak egin izan eban etxe tzarra.

Aspaldian zartzaroko arazoak konpondu guran lan egiten asiak

gara eta asko berba egiten da «irugarrien adin» orri daukan mingostasuna kendu naian.

Zarrentzako Erresidentzi-Egoitz uriburuetan be jende asko bizi da ta ondo egongo dira. Baiña kontuan artu bear dira errialdeak eta eurotan antolatu ain aundi izango ez diran etxe baketsuak. Olan, pertsona nagusi oneik ez dira atara ta urrinko ainbeste euren girotik.

Beste leku batzuetan, Araba'n egiten dabenez, gizon eta andra adiñekoeke euren etxeetan aurkitzen dabe diru naiz laguntza: olan lan barik dagozan gazteei zeregiña ta dirua emoten dautsee, zaarren etxeetan lan egiñaz eurok zaintzen.

Ezin ukatu, gauza batzuetan beintzat obarantz goazanik urteotan. Ia ba, gizartearen utsuneak betetzen doguzan apurka-apurka gure alegiñez.

YONE'k

IKERTALDIA

Arteta eta Orbe tar Imanol'en orripenez.

*Etorriko yatzu ikertzen sendia,
gaur dator zu ikusten, anai gaztia.*

* * *

*Obeto nagola osagillak diño,
ta ataratzan nabe, bai, baratzera.
Gaztia izan arren, orain gauzeza,
ta Aberri maitia menperatua...
Zer daukot aurrian? BARRIRO ESPETXERA.
Benetan illuna etorkizuna.
Alaya ta poza ezta zeuretzako,
gudari gaixoa azpiratua.*

* * *

*Poztu zaitez, gaur ba, diño gaizo-zañak,
gaur da zeuratzako, ikertaldia.*

*Matrallatik bera negarra dario,
nigandik urruntxu, gelditu da.
Nik, izparingian begiak lotuta,
biotza gogortzen dot, bitartian.
Nire anai txikia! besarkatu gure
negarrik ein barik, bere aurrian.
Anka bat bakarrik, ezin naz zutundu.
Eta bera eztator miñez, nigana...*

UTARSUS

Euskalerritik

Mundura Begira

SUDAN

Aspaldi ontan ez da agertzen izparringietan Afrika'ko Laterri zabal onen izenik, baiñan laister agertatu da berriro.

Len bai, gizarte-mezu-bideetan, maiz entzuten genduan bere izena, urte askoren luzaroan borroka bizian sarturik egona bait zan: Egoa, Iparraren aurka.

Iparra zuria da endaz, arabitarra, erlijioz maometarra. Egoa berri beltza, eta erlijioz kristaua, geiena beintzat, sasijainko-gurtzaille batzuek ere bai dira an oraindik.

Ez da gauza erreza Sudan'en zenbat jende bizi dan jakitea. 1977'an 18.650.000 biztanle ziran, Gaur 22 milloi izango dira; % 60 ipartarrak; % 40, egoaldekoak. Beltzeranak aiek, zearo beltzak auek, gizakume aundiak, bi metro ingurukoak, bizkaiñak; ederki tajutuak gorputzez.

Laterri aundia da Sudan, badauz ba 2.505.813 kilometro laukoi. Ia-ia España eta Portugal'eko Laterrik batera baiño iru aldiz geiago!

Zearo ezberdiña da lurralde zabal ori. Iparraldea, eta gerrialdea ere bai, ondar utsezko lekaroa, Sahara aundiaren zatia. Lekaroren sortaldeko zatia. An ez dozu bizerik aurkituko, egotik iparrera bustintzen eta ezetzen dan Nilo ibaia-aren ertzetan ez ba'da. Ibaia-aren ertz oietan bizi da iparraldeko jende guzia.

Ego-aldea, oso-osan basoa da; ludiaren gerrialdeko oyanaren ertza; iparralderuntzko ertza.

Sudan'en iparraldeari Nubi deitu oi yako edesti zarrean. Antziñako Faraoi ejiptziar aien mendean luzaroan egon zan Nubi ori, Seigarren mendean iritxi yakon kristautasuna, eta zearo kristau izan zan amalaugarren mendean maometarrek indarrez beren sinispena an sartu arte.

Joan zan mendean borroka bizian ibilli ziran an inglesak. Irakurleek, «Lau Luma» zeritzan zine-mintza ikusi ba'dabe, gogoan izango dabez Charles Gordon, Al Mehdi, Lor Kitchener eta Abdullah Kalifa, borroka artan gudalburu ospetsu izan ziran gizonak.

1958'an egin zan Sudan Laterri yare, ta berealaxe artu zuten jaurlaritza militarrek, beste edonun bezala, izkilluen bidez.

Arrezkero ez dau Sudan'go Errepublikak pakerik ezagutu; Iparraldean, militarrek ia etengabe iraultzan ibilli diralako, eta Laterri osoan ipartarren eta egotarren arteko gorrotoak amairik izan ez daulako.

Jaurlaritzan muturra sartu bezain laister asi ziran militarrek egoaldea «arabiaritzen», «arabizitzen». Barrokaren bidez erantzun eutseen egotarrek. Txit ezaguna egin zan borroka artan «Aña-Aña» egotarren oian-borrokalari taldea.

1962'ean misiolari kristau guztiak erbesteratu ebazan Jaurlaritzak. 1969'ean, iraultza baten bidez, Numeiri koronelak artu eban agintea. Iru urte geroago, egoaldeari burujabetza zabal bat emonaz, lortu aal izan eban pakea.

Orañ ordea okerki aundiak egin dauz Numeiri berak, laguntzaille kutun daun Omar Tayeb'ek ortara bultzata.

Adibidez, islam-legea ipiñi dau tse indarrez, kristau diren egotarrei.

Egoaldeko Jaurlaritzaren aalmena aultzeko, iru probintzitan zatitu dau Egoaldea; ta Buerejebez-Araudian erabakia izan zanaren aurka, Iparreruntz eramen nai izan dau Egoaldeko gudarozte beltza.

Erantzuna: Gudari beltz guztiak ta agintari eta guzti, oianera joan yakoz. Ta piztu yaku berriro gudua Sudan'en.

Maiz ikusi dogu, Euskalerritik munduari egiten dautsaguzan begiratuetan, erri batean jende ez berdiña bizitea arrisku aundiko gauza dala, batez ere ez berdintasun oiek oso sakonak ba'dira.

Ta orixe gertatzen yaku Euzkadi'n ere, bai Euzkadi'en sortaldean; Naparroa'n, bai Euzkadi'ren sarkaldean: Araba-Bizkai-Gipuzkoa'n. Iruña'n eta Gazteitz'en, zail izango yaku, aurrera irten dai tekean Jaurlaritza bat osotzea.

Baiña Sudan'en bezala alkarrekin borrokan asi orai ez ba'dogu ikasi bearko dogu euskotarrok alkarrekin bizitzen.

Laterri yare izateko, naitanaiez ikasi bearra dan gauza da alkarrekin pakean bizitze ori. Orain aukeratu doguz gure ordezkariak lau urterako. Lau urte auek erakutsiko dauskue alkarrekin bizitzeko gai izatera iritxi geran ala ez.

LATIEGI'tar BIXENTE

UDABARRIARI BURUZ

*Goietako edurrak-ta urtuz
Negua ba-doala ikustean
beren laino, ekatx, izotzakaz,
beste bizikera bat usnatuz...
Poztu egiten da ni naizen bat
eguzkiaren alaitasunpean
udabarria lenengo lorakaz
ederrik datorrela nabaituz.
Orrelako bizi-ikutuakaz
poztu egiten da bat benetan
izadien eskeintzapenakaz
baso, landa, zelai orlegietan
eguzki ta euri ederrakaz*

*zuretzat, niretzat, guztiontzat
udabarriak lorak ereitean
txori-abesti zoragarriakaz.
Baiña, errea ta zauriturik
baldin ba-dozu biotz barrua
arantza zuladuraz beterik
ta, eragozpenez nekatua...
Negu otza ba-litz lez, mindurik
aurkituko zara, ondatua,
udabarritar zantzu ederrez
zuretzat Loreillik ez ba-litz lez.*

MUNIATEGI'tar SABIN

"EUSKERAZALEAK" IPUIN-SARIKETEAK

EUSKERAZALEAK Taldeak, igaz lez, ipuin-sariketea eratzen dau. Sariketa onetara sartzeko, oneik izango dira baldintzak:

- Euskera biziz idatziak izan bearko dabe. Erriak darabilen euskalkietariko bat erabilliaz idatziak.
- Ipuinen itzulpenak ez dira onartzen.
- Luzerea, iru orri-alde, bitarte bi lerroartean dituela.
- Epea: Jorraillaren azkeneko gure etxean (Colón de Lerreategui, 14, 2.ª eskoia) izan bearko dabe.
- Sariak: Iru sari izango dira: 1.ª 40.000 pezeta; 2.ª 30.000 pezeta eta 3.ª 20.000 pezeta.
- Ipuin sarituen jabe "EUSKERAZALEAK" izango da eta ZER gure aldizkarian argitaratuko dira. Sari barik geratzen diranak, idazleen esku geratuko dira eta eurak billa etorri bearko dabe.
- Oitura dan lez, ipuina izen-ordez bialdu eta izen-orde ori gainean daroan azal baten barruan sartu izen-ordea ta izena batera daroan txartela.
- Maikoen erabagia, uztaileko ZER'en agertuko da.

BIZKAIEREAREN ASTEA

EUSKERAZALEAK ALKARTEA euskerea erabilteari indarra emoteko sortu zan eta orretarako egiten dau bere lana, orretarako da bere ekiña.

Baiña zori txarrez, erriko euskerea kendu eta erritarrak gax egiten jaken euskerea erabilten dalako, gure izkuntzaz berba egiteko gaiztasun bereziak sortu dira, batez be guraso ta seme alaben ar-

tean eta izlari ta entzuleen artean edo irakasle ta ikasleen artean alkar ulertzeari oztupoak ipiñi jakozelako.

Orregaitik guk erriko euskerearen alde jokantzen dogu eta Bizkai'ko **Euskerazaleak**, jakiña, Bizkai'ko Euskerearen alde.

Baiña nondik sortu da euskaldi eder dau? Zein da beronen kondaria? Zeintzuk dira barruan daroazan edertasunak?

Nondik datoz bere aurrerabidean aurkitzen dauzan eragozpenak? Nortzuk eta zelan idatzi dabe bizkaieraz? Orra or guztiontzat jakingarri diran gaiak.

Jakingarri orrek zabaltzeko ta oiñarritzeko, **BIZKAIEREAREN ASTEA** eratu dogu aurren, urrengo urteetan be eritzen jarraitzeko ustea dogula. Ona emen aste onen jakingarriak:

NOZ: 1984'ko orrillaren 14'tik 18'ra, arratsaldeko 7,30'ean.

NON: Bilbo'n, Rekalde'ren ibiltegiko 19'an dan Eskolapioen Ikastetxean.

LENENGO EGUNA: Orrillak 14, (Astelena).

GAIA: EDESTIZKO TA BARRU-MIÑEZKO OLERKIA (Epika ta Lirika) bizkaierearen elertian.

GAIAREN ATALAK: * Kopla zarrak bizkaieraz. Maite-leloak. Illetak, abestiak...

* Agozko elertia arlo onetan.

* Idazlerik ospetsuenak.

* Gaurko elertiaren giroa edestizko ta barrumiñezko olerki-saillean.

IZLARIA: Onaindia'tar Santi aita.

BIGARREN EGUNA: Orrillak 15 (Asteartea).

GAIA: EUSKAREA BIZKAI'KO KRISTIÑAU-IKASBIDEAN.

GAIAREN ATALAK: * Eleizetako euskerearen indarra, errietakoa zaintzeko.

* Kalagorri'ko Gotzaiñen jokabidea.

* Izlarien lana, Frai Bartolome eredu dala.

* Kristiñau-Ikasbiderako liburuen kondairea.

IZLARIA: Rementeria'tar Jose M.^a jauna.

IRUGARREN EGUNA: Orrillak 16 (Eguastena).

GAIA: ANTZERKIA BIZKAI'KO EUSKAREN.

GAIAREN ATALAK: * Erri-antzerki zarra: Aratusteak.

* Eleiz-antzerki zarra: Ikuskizun edo misterioak.

* Barrutia'ren gabonetako ikuskizunaren gaia, euskalkia ta euskerea.

* Bizkaiereak izan dauzan antzerkigile ezagunak.

* Azken urteetako antzerkia Bizkaia'n.

* Antzerkia, zinea ta urrutikuskiña: Etorkizuna.

IZLARIA: Zubikarai'tar Augustin J.^a

LAUGARREN EGUNA: Orrillak 17 (Eguena).

GAIA: ELEBARRIAK BIZKAI'KO EUSKERAZ.

GAIAREN ATALAK: * Pæru Abarka elebarria? Lenengoa? Zergaitik?

* Txomin Agirre'ren Auñamendi'ko Lorea'ren azterpena.

* Kresala'ren euskerea, joskerea, elebarri-balioa.

* Josetxo, Etxeita'ren elebarria.

* Gaurko giroa elebarri-arloan Bizkai'ko Euskaldian.

IZLARIA: Akesolo'tar Lino aita.

BOSTGARREN EGUNA: Orrillak 18 (Barikua).

GAIA: ESKRIBAUAK ETA EUSKAREA LEN ETA GAUR.

GAIAREN ATALAK: * Eskribauen agiriak eta euskerea.

* Agiriak euskeraz egiteko eragozpenak.

* Lege arrunta tar lur lauetako legea.

* Etorkizuna nondik nora.

* Bizkaiereari buruz zer?

IZLARIA: Urrutia'tar Ander.

Ba-dira beste gai batzuk aste onetan aztertu bearrekoak, eta lenengoa bear ba'da, euskalkiak eta bikairea nondik sortuak diran. Gai au agertzeko zan izlaria gaisorik daukagu, eta bear ba'da urrengo urtean aztertu al izango da. Biz-

kaierearen joskera, aditza, iztegia et olako gaiak be artu leitekezan. baiña urren-gorako geratu dira, zergaitik edo agaitik. Dana dala, arloa zabala izan arren, epeak be ez dauka mugarik eta aurrera egiteko bide bat ikusten dogu or.

Agurrik beroena gure irakurle ta adiskide guztiai eta aste orretan alkar-izketa gogotsuetan alkartzeko itxaropana guztioi.

BUZTANDUN GIZONA

Gaurko egunkari baten (Diario Vasco, 12-II-84) onelako au irakurri dot: «Malasian ume bat iru pulgada luzeerako buztanaz jaio da. Benetan gauza bakana (raroa) izan da. Jakintsuak giza-buztan kasu au interes andiaz ikertzen diardue. Aspaldiko gizonak, tximiñoen antzera, buztandunak ziran, baiña gero gizonak lurrean anka biren gaiñean zutik ibiltzen ikasi ebeanean, buztanaren bearrrik ez eukalako, galdu egin eben... Ez dakigu noiz ebagiko dautsoen buztan ori Malasiako ume gaixo orreri».

Au irakurri dodanean barre ederrak egin dodaz neure barruan.

Zergaitik?

Ume orreri ez jakola buztana kendu bear, nik uste dot. Eta zergatik esan «ume gaixoa» dala? «Ume zoriontsua» esan bear geunke.



Aspaldian gizon guztiak buztandunak baziran, orain ume orreri bere buztana kendu ez baiña, beste gizon guztioi buztana ipiñi bear deuskue, «ANTZIÑA ALA ZALAKO».

Barregarri, benetan, ezta?

Bada, buztanaren orde «H» ipiñi egizu, eta bardin diskurritzen dabe «H»-zaleak. ANTZIÑA «H» ERABILTZEN ZAN (eta gero galdu arren) BARRIZ «H» ERABILTZEN ASI BEAR DOGU.

Ez ete da, bada, obe ume bateri buztana —alperrikakoa— kentzea, beste guztiei buztana ipintzea baiño?

GOITARKI

EZKON-BARRIAK OSTATUAN

Ezkon-barriak, oitura dan lez, euren ibillaldi luzea egiten ziarduen eta ostatu-etxe eder batera (izar asko eukan Otel batera) eldu ziran.

Uso maitekiro artu ebezan eta an guztiak egozan eurai laguntzeko gertu: Pardelak gora eroateko, gorakiñaren atea idegiteko, janariak sasoiz ekarteko, garbikuzirako...

Baiña eurak euskaldun apalak ziran eta ez eben nai olako laguntzarik. Naiago eben eurak dana egin: Pardelak eurak eroan ebezan gelara, gorakiña artu barik mailladitik igoten eben, janariak artzeko billa joaten ziran, garbikuzia eurak egiten eben...

Ordaintzeko eguna eldu zanean, zintzo-zintzo urreratu zan senar barria ordain-lekura eta esan eutsen apain jantzita egoan jaun areri:

- Bagiratu,, jauna, biar amaitzen da gure emengo egotaldia eta esan egidazu arren zer zor dogun.
- Bai. Emen daukazu zure ordain-agiria. Lenengo, pardelak gelara eroatea berreun pezeta.

- Jauna, baiña pardelak geuk eroan doguz!
- Bai. Baiña or egoan otseiña gertu. Nai izan ez ba'dozu, ori zeure arazoa da. Eta gorakiña erabilteagaitik beste berreun pezeta.
- Jauna! Baiña gu mailladitik oiñez joan gara!
- Bai, bai. Baiña or egoan gertu. Artu ez ba'dozu, ori zeure arazoa da...
- Entzun jauna! Neuk be ordain agiria aurkeztu bear dautzut.
- Zuk?
- Bai!
- Zerena?
- Nire emazteagaz ogeratu zareelako 5.000 pezetat!
- Baiña nor ogeratu da zure emazteagaz?
- Or izan da bera. Ogeratu ez ba'zaree, ori zeuen arazoa da!

OLAZAR'tar MARTIN'ek

EUSKAL IKUSTIRRATIA (II)

(Ez "Telebista")

«ZER da Ikustirradi baten zeregiña, irrati guztiena lez, erriagaz eta erriarentzat berba egitea baiño?»

A. Zubikarai'k

Guk emen aitatzen dogun jazoera tamalgarriaren buruz, gure bizkaitar idazle bikaiñak joan dan Zezellaren 13'an berba aipagarri orreik berak sarritan idazten dauan izparringian esaten ebazan.

* * *

Ona emen ba Zubikarai'ren barbakaz, Euskal Ikustirratia'ko jazoeraren laburpen bat: «Egunotako baten markiñar umetxu batzuk agertu ziran gailu orren argi ta begi salatarien aurrean. Pozik areik, ziurretik, orrelako baten agertzeko...

Baiña ume errukarriak, gixajoak, "sursun-kordan" geratu ziran, ao zabalik, ia zer erantzun jakin ez da, gizonari begira, arek erabillan aditzak artu edo ulertu eziñik, uste eta naiko eben erraztasunaz erantzunik ezin asmatuta».

* * *

Zubikarai'k jarraitzen dau: «Eta umeak, umeak oi daben errubakotasunez, gure Euskal Ikustirradi'ko euskal jokabidearen salakuntzarik agirierna egin eben, mutu baiña ikusleak konturatzeko eran. Azkenean tokian tokiko erarik be ez».

Eta Zubikarai'k diño geroago: «Ez ete dago EII'n erri euskararik egin daikenik edo nai dauanik? Ortik sortzen dira gero mar-marrak. Or dabil jendea amarretik gora bizkaitar ibilli zirala Euskal Ikustirratia-ko gertuten eta aukeratzeko zorionik ez ebela lortu».

Bai, Augustin, onetariko jazoerak ikusita, geuri be zeuri jazoten jatzuna jazoten jaku: barre ala negar, ez dakigu zer egin.

* * *

Ba Ikustirratia-aren zeregiña erriagaz eta erriarentzat berba egitea izan ezkerro, siñest-eziña da Euskal Ikustirratia kaintzakotzak be ez artzea BIZKAIERIA, Bizkai'ko euskerea, eunetik 45 inguruk euskaldunen artean egiten daben euskerea.

Baiña, dirudienez, EII'koentzat gu ez gara erria, Bizkaia ez da erri euskalduna ta, orregaitik, BIZKAIEREA be ez dauka baliorik... Oстера, bizkaitarren diruak ba-dauka balioa, ta zoritxarrez, baita be Euskal Ikustirratia'n BIZKAIERIA baztartzeko, bizkaitarren euskerea zapaltzeko!

* * *

Aspertuta gagoz ainbeste jauntxokeri ta zapalkegagaz... Bizkaitarren eroapenak be neurri bat dauka, ta euskaldun guztion onerako Euskal Ikustirratia'n ainbat lenen gauzak aldatu egin bearko dira. Iñok ez dagiela pentsatu Euskal Ikustirratia'n BIZKAIERIA bastartzen dan bitartean bizkaitarrak besoak uztarturik geldituko garala.

Markiñar umetxuak Euskal Ikustirratia'ko euskal jokabidearen buruz egin eben salakuntza, jatorrizko bizkaitar euskaldun guztion salakuntza da!

BILBAO'TAR JON E.

EUSKERAZALEAK

ZER

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

Bizkaia'k bere Kutxa dauko



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA



BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA

Laguntza aundia